

UME SAHARARRAK HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN DEIALDIA 2015 EKITALDIRAKO

1. artikulua.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da ume sahararrak hartzen lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteak diruz laguntzea, "Oporrak bakean" programaren barruan, maiatzaren 23(e)ko 1062/14 Dekretuan zehazten dena.

2. artikulua.- AKTIBITATEAK ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Deialdi honen barne sartzen dira 2015eko udan zehar egingo diren aktibitateak.

Diruz lagundu ahal diren bi aktibitate eta gastu mota daude:

1. LEIOAKO UDALERRIKO FAMILIETAN HARTZEA

Leioako familietan geratzen diren umeen bidaia-gastuak eta egonaldiak familiei eragin ahal dizkien aparteko gastuetarako ematen zaizkien txartelei dagokien zenbateko bat ume bakoitzeko, baita aktibitateak antolatzeko diru-kopuru txiki bat ere.

2014an ume bakoitzeko emango den diru-laguntza 830 eurokoa da.

2. BIZKAIKO ATERPEETAN HARTZEA

Beste alde batetik, arrazoi desberdinengatik familiek hartu ezin dituzten eta Bizkaiko aterpetxeetan egongo diren umeen egonaldia diruz lagundu daiteke.

3. artikulua.- ONURADUNAK

Irabazi asmorik gabeko elkarteak, Sahararekin Lankidetzan esparruan lan egiten dutenak, gutxienez, urtebeteko esperientziarekin.

Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13.2 artikulua debekatzen dituen kasuren baten barne sartzen diren entitateak ezin izango dira onuradunak izan.

Pertsonak edo entitateak onuradun izateko inolako debekurik ez dutela justifikatzeko, ardurapeko adierazpen bidez egin dezakete. Beraz, orokorrean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Egoki den EAEko erregistroan inskribatuta egotea.
- Gaitasun juridikoa edukitzea eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. Artikulua diru-laguntza publikoak ezin jasotzeko aurreikusten dituen inguruabarretakoren baten barne ez egotea.
- Egoitza zentrala edo ordezkari itza iraunkorra edukitzea Bizkaiko Lurralde Historikoan. Ondore hauetarako, ordezkari itza iraunkor legez ulertuko da agiri bidez ziurtatutako egitura adierazgarriak egotea Bizkaian. Kasu honetan, ordezkari itza iraunkorrek erantzukizun zuzena eta eskabidea aurkeztea bere gain hartzen ditu eta konpromisoa hartzen du agiriak mantentzeko, kontabilitatea eramateko eta proiektua ko-kudeatzeko bere Bizkaiko bulegoan.
- Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eta zerga obligazioak beteta edukitzea.
- Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzak epe barruan justifikatuta edukitzea.

4. artikulua.- ESKABIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA.

Eskabideak Leioako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koa, 38.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan.

Diru-laguntza jasotzeko, ezinbestekoa izango da jarrian zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztea:

- a) Diru-laguntza normalizatuaren eskaera (I. eranskina).
- b) Banku inprimakia (II. eranskina)
- c) Eskatzailearen NAN fotokopia.
- d) Entitate eskatzailearen estatutuen kopia.
- e) Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria.
- f) Entitatearen IFKren fotokopia.
- g) Estatutuen arabera entitateko arduraduna den NAN fotokopia.
- h) Aktibitate edo ekitaldiaren proiektu zehaztua, gutxienez, honako hauek barne hartuz: proiektuaren deskribapena, aktibitatearen publikoa zein den eta helburuei dagozkien lekuak eta datak.
- i) Eskabidea egin eta aurreko urte edo urteetan eskatzaileak proiektuarekin erlazionatuta dauden antolatutako aktibitate edo jardueren memoria.
- j) Eskabidea aurkeztu eta aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen balantzea. Eskabidea aurkezten den urteko aurrekontua, diru-laguntza eskaeraren xede den aktibitate edo proiektuari dagokiona.
- k) 2015ean garatu nahi den aktibitate egitaraua, epe eta datak, metodologia, helburuen deskribapena eta herriko zein kolektibotarako zuzenduta dagoen aipatuz.
- l) Eskatzailea obligazio fiskalekin bete duela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko da, dagokion Ogasunak eginikoa. Zerga obligazioak Leioako Udalarekin dituzten elkarten kasuan, eskabidean hori beren-beregi adierazten duen deklarazioa erantsiko dute, eta Udalak jarriko du, ofizioz, aipatu ziurtagiria.
- m) Eskatzaileak behartze-harremana badu Gizarte Segurantzarekin, indarreko legearekin ados, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eginiko ziurtagiria aurkeztu beharko du, erakunde horrekiko obligazioekin bete duela ziurtatzen duena.

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, eta bost urte baino gehiago igaro ez badira agiriok aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkeztu bada, aldi berean, beste erakunde publiko edo pribatu baten, Leioako Udalaren aurrean aurkezten denak hori beren-beregi zehaztu beharko du, aipatuz zein erakunde edo erakundeei eskatu zaien eta eskatutako, edo hala badagokio, jasotako zenbateko zehatzak.

Kasuan kasuko berezitasunak aintzat harturik, Udalak eskatzaileari eska diezaioke egoki deritzon edozein agiri osagarri, proiektua bere osotasunean baloratze aldera.

Eskabideak baztertzea:

Azalpen memoria edota Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentalik aurkeztu ez duten pertsona edo entitateen eskabideak ez dira aintzat hartuko.

Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak:

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio 10 lan eguneko gehienezko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela.

- Epea: eskaerak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, deialdi hau Udalaren Ediktu Taulan eta gainerako udal komunikabideetan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Eskabideak aipatu epeetatik kanpo aurkeztuz gero bertan behera geratuko dira, bestelako tramiteren beharrik gabe artxibatuz.

5. artikulua.- AURREKONTUA.

Eskatzaileen artean banatzeko gehienezko zenbatekoa 8.000 eurokoa izango da, eta Gastu hori 00600 – 31110 – 4900200 aurrekontu partidari kargatuko zaio.

Lehendabizi, 1. modalitatera aurkeztutako eskabideak baloratuko dira. Horiei, gehienez, 6.000€ esleituko zaie.

2. modalitatean, familietan hartzeko kontzeptupean eman ez den zenbatekoa esleitu ahal izango da aurrekontuaren maximora heldu arte.

6. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA.

Diru-laguntza hauen emakidarako prozedura norgehiagoka bidezkoa da.

7. artikulua.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK.

Aurkeztutako proiektuak 0 eta 100 puntu bitartean baloratuko dira. Diru-laguntza emango zaie lortutako puntuazioarekin proportzionalki.

Proiektua baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

1. modalitatean hau baloratuko da:

- Leioako Elkarleen Erregistroan inskribatuta egotea, **30 puntu**.
- Esperientzia familiak hartzen, **25 puntu**
- Ziurtatutako esperientzia Sahararekiko Lankidetzan, **25 puntu**
- Aurkeztutako proiektuaren kalitatea, **20 puntu**

2. modalitatean hau baloratuko da:

- Leioako udalerriko Elkarleen erregistroan inskribatuta egotea, **30 puntu**
- Ziurtatutako esperientzia Sahararekiko Lankidetzan, **25 puntu**.
- Aterpeetan hartzeko modalitatean esperientzia izatea, **25 puntu**
- Aurkeztutako proiektuaren kalitatea, **20 puntu**

8. artikulua.- INSTRUKZIOA, EBALUAZIOA ETA EBAZPENA.

Instrukzio organoa izango da Lankidetzaren Arloko ardura teknikoa duen udal langilea.

Ebaluazioa egingo duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

- Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzaren Batzordeko presidentea
- Emakume Arloko teknikari arduraduna.
- Haurtzaro eta Familia Arloko teknikari arduraduna.
- Garapenerako Lankidetzaren Arloko teknikari arduraduna.
- Idazkaria Udaleko idazkaria izango da, edo berak aukeratutako pertsona. Hitz egin ahal izango du baina ez du boto eskubiderik izango.

Eskabideak Alkatetza Dekretu bidez ebatziko dira Garapenerako arduradun teknikoaren proposamenez. Dekretu hori Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzaren Batzordeari jakinaraziko zaio, sei hilabeteko gehienezko epean, deialdi hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Interesatuak jakinarazpena egiteko epea 10 egunekoa izango da, ebazpena egiten den egunetik aurrera. Jakinarazpena posta arrunt bidez bidaliko da. Emandako zenbatekoa eskatutakoa baino

txikiagoa balitz, onuradunari eskabidea onartzea eskatuko zaio. Onartutzat joko da kontrako ezer adierazten ez bada jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean.

Epea igarota, ez balego eskaerari legokiokeen beren-beregiko ebazpenik, ukatutzat emango da, aurrerago beren-beregi ebatz litekeen arren.

9. artikulua.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Deialdi honetako diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek honako obligazio hauek bete behar dituzte:

- a) Garapenerako Lankidetzaren arloan, diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzak zehazten dituen arauak behar bezala bete, baita diru-laguntza emateko ebazpenak ezar litezakeen baldintza zehatzak ere.
- b) Emandako diru-laguntza onartu. Emakida jakinarazten den egunetik aurrera, zazpi eguneko epean, pertsona edo entitate onuradunek ez badiote beren-beregi eta idatziz diru-laguntzari uko egiten, onartutzat joko da.
- c) Diru-laguntza erabili eskatu zen helburu zehatzerako.
- d) Diruz laguntzen den aktibitatea garatzeko behar beste baimen eskuratu.
- e) Aktibitate eta ikuskizun publikoei buruzko indarreko araudia bete (Eusko Legebiltzarraren azaroaren 10eko 4/95 Legea, ikuskizun publiko eta jolaserako aktibitateei buruzkoa; eta ekitaldi horiek arautzen dituen Udal Ordenantza), baita dagokion esparrura aplikagarriak diren gainerako araudi guztiak ere, estatukoak edo erkidegokoak.
- f) Promoziorako elementuetan eta diruz lagundutako aktibitaterako sortzen diren kartel, testu edo dokumentuetan, EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar direnak, Leioako Udalaren Gizarte Ekintza Atalaren babesa aipatu. Halaber, kartelak jartzeko udal araudia bete.
- g) Helburu berbererako jaso den edozein diru-laguntza jakinarazi, publikoa ala pribatua, eta betiere, jasotako zenbatekoa adierazi.
- h) Leioako Udalarekin kolaboratu, eskatuz gero, ikerketa, inkesta edo estatistikak lantzeko edota lan-taldeetan parte hartzeko.
- i) Udalak egin ditzakeen egiaztapen guztiei men egin.
- j) Garapenerako Lankidetzaren arloan emandako diru-laguntzak arautzeko Udal Ordenantzaren 17. artikulua ezartzen duen bezala, emandako zenbatekoa nola erabili den gaineko zurrabidea egin.
- k) Jasotako dirua zertan erabili den justifikatzen duten agiri guztiak gorde, egiaztatze eta kontrol jardueretarako eska baitaitezke.

- l) Kontabilitate liburuak, erregistroak, diligentziatuak eta bestelako agiriak behar bezala ikuskatuta eduki, merkataritza legeak eta onuradunari aplikatu dakiokeen sektoreko legeak exijitzen duten moduan, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileek exijitzen dituzten kontularitzako egoerak eta erregistroak, egiaztatze eta kontrol eskumenak egoki exekutatzeko aldera.
- m) Jasotako dirua itzuli (azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan zehazten dituen itzulketarako kasuren bat ematen bada).

10. artikulua- LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA.

- 1. Onuradunak, diru-laguntza justifikatzeko, gastatutakoaren justifikazio-kontua aurkeztuko du behin diru-laguntza jaso duen aktibitatea amaituta. Horrez gain, 2015eko abenduaren 31 baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
 - a) Garatutako aktibitatearen memoria zehaztua.
 - b) Aktibitatearen diru-sarrera eta gastuen balantzea; diruz lagundu den aktibitateak jasotako beste edozein diru-laguntza edo laguntza publiko zein pribatu adierazi beharko da.
 - c) Aktibitatearen eraginez sortutako gastuen egiaztigiri originalak, konpultsatzeko, emandako zenbateko osoa bete arte. Egiaztigiri horiek fakturak edo merkataritza legeen trafikoan proba-balio berbera duten bestelako agiriak izan daitezke.

Fakturretan, honako hau zehaztu beharko da:

- Entitatearen, elkartearen... Identifikazio Fiskala.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Zerbitzua zein aktibitatearentzat den.
- Zerbitzuaren deskribapena.

Honakoak ez dira egiaztigiri legez onartuko:

- Administrazioko, antolakuntzako... barruko kostuak.
- Anaitasun bazkari edo antzekoen kostuak.

- d) Diruz lagundutako aktibitate edo ekitaldiaren testuinguruan editatu edo argitaratutako eskuorri, kartel, liburu, bideo, CD eta abarren ale bana eman. Horietan, Leioako Udala agertu beharko da diruz lagundutako aktibitatearen babesle bezala.

2.- Aktibitatea beste edozein entitate publikok edo pribatuk kofinantzatu duen kasuetan, justifikazioaren parte bat izango da fondo horiek nondik datozen eta diruz lagundutako aktibitatean zertan aplikatu den egiaztatzea.

3.- Onuradunak aurkeztutako dokumentu originalak behar balitu, fotokopiarekin batera emango dira. Fotokopia erkatu egingo da eta originalak bueltatu egingo dira zigiluarekin.

4.- Justifikatzeko aurkezten den dokumentazio guztiak ekitaldi ekonomikoaren data eduki beharko du diru-laguntza eman ahal izateko.

11. artikulua- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.

Diru-laguntzak ematen diren momentuan ordainduko dira.

12. artikulua- BATERAGARRITASUNA.

Diru-laguntza hauek deituta edo dei daitezkeen beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira, betiere jasotako diru-laguntza guztien batuketak ez badu aurkeztutako aurrekontua gainditzen. Egoera horretan, dagokion zenbatekoan gutxituko da deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

13. artikulua- ESKAERAK BERREGITEA

Diru-laguntzaren xedea bada eskatzaileak garatu beharreko aktibitateak finantzatzea eta behin-behineko ebazpen proposamenean zehazten den diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran zehazten denaren azpitik badago, ebatzi baino lehen, zazpi eguneko epea irekiko da ondo deritzon onuradunak eskaera berriz egin dezan, konpromisoak eta baldintzak eman daitezkeen diru-laguntzara doitzeko.

Edozein kasutan ere, eskaera berregiten bada, diru-laguntzaren objektua, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, baita eskaerarako ezarrita dauden balorazio irizpideak ere.

14. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA.

Jasotako laguntza Udal Diru-kutxara itzuli behar izatea gerta liteke, diru-laguntza ordaindu zenetik eta itzulketaren bidez kotasuna erabaki bitarteko epeari legezkoak atzerapen interesak barne, Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko 17. artikuluan ezartzen den kasuren bat gertatzen bada.

AZKEN XEDAPENA.

Diru-laguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.

I. ERANSKINA

“OPORRAK BAKEAN”. DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

E S K A E R A

Behean adierazten diren datuak dituenak honako hau ESKATZEN dio Leioako Udalari:
..... euroko diru-laguntza, 2015eko udan, familian / aterpean hartzeko erregimeneko
elkarte eskatzaileak egingo duen “Oporrak Bakean” programarako (ezabatu egoki ez dena).

Beste alde batetik, adierazten du diru-laguntza eskatu diola entitate honi proiektu
berberagatik:.....

Halaber, adierazten du araudia ezagutzen duela, edukia onartzen duela, eta diru-laguntza jasoz
gero, bertan adierazten dena betetzeko konpromisoa hartzen duela.

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak:

NAN:

Helbidea:

Lurraldea:

Tel.:

Ordezkatzen duen ELKARTE/ENTITATEA:

IFZ:

Helbidea:

Konstituzio urtea:

Kide kopurua:

Kide kopurua Leioan:

Erregistro zk.:

Data eta lekua:

II. ERANSKINA
DENTIFIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO DATUAK

Enpresaren izena / Sozietatearen izena:

IFZ / NAN:

Ordez kariaren izena, abizenak eta NAN:

Posta helbidea:

E-mail kontua / Web orria:

Telefonoak:

Faxa:

Banku datuak:

-IBAN (4 digitu)

-Kontuaren titularra:

-Zenbakia (20 digitu):

Data, izenpea eta sinatzailearen izena eta NAN.

Banku ziurtagiria aurkeztea derrigorrezkoa da adierazten den banku kontua dagokiela egiaztatzen, edo bankuaren zigilua "Banku datuak" atalean.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko jakinarazi nahi dizugu agiri honetan azaldutako datuei tratamendu automatizatua emango zaiela, eta Udalaren ardurapeko fitxategietan sartuko direla. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri administrazio batzuei laga edo hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie, betiere aipatutako legean aurreikusitako kasuetan. Interesdunek datuak ikusi, ezeztatu, zuzendu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, udal bulegoetan eskatuz.